

BERTSOEN-TXOKOA

**2018-GOTZON GARATEREN ADISKIDEAK
DURANGON URTEROKO BILKURA**

1

Urteroko bilkura
Gotzonen omenez,
esker ta oroimena
bihotzetan gordez,
euskaltasun bultzadaz
mugitzen garenez,
euskara ahoetan
abertzale senez.

2

Bizipen desberdinez
Herri honen alde,
bakoitzak ahal duena
egitea lege,
helburu edo xede
Herri burujabe,
Frantzia eta España
ez ditugu jabe.

3

Durango bilgunea
aukera eskertu
bizi garen uneei
ager errespetu,
abesti eta kantuz
zorteaz jabetu,
kukuaren kantuak
natura edertu.

4

Munduan jesuitak
irabazi sona,
Jesusen Lagundia
guztiontzat ona,
Koldo katxo ta Gotzon
ereduak hona!
Izakera bikaina
on eta sakona.

5

Durangon Jesuitak
herriko argazki,
hezitzaile lanetan
ospe ona noski,
giza lege zuzenez
gidatuz eztiki,
ardatz eta gidari
Koldo fin apalki.

6

Munduko pobreenak
sorterritik ihes,
gosete eta gerrek
jarri ditu minez,
porrota eta drama
gogorra da zinez,
konponketa azkarra
ekinbidei finez.

7

Animoso al gara
gustura al gatoz?
hemen bildutakoak
atsegin eta poz,
XABIER joan zaigu
esaten dut malkoz,
joandako guztiak
gomutara datoz.

Pilare Baraiazarra

Durangon, 2018ko maiatzak